

HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK

2026

Non: Euskadiko Artxibo Historikoa, Bilbo

Noiz: 2026ko martxoaren 4tik ekainaren 17ra

Asteguna: asteazkena

Ordutegia: 17:00-20:00

Ordu kopurua: 42 ordu

Irakaskuntza modalitatea: presentziala

Ikasleei eskatuko zaie: asistentzia (%80)

Antolatzaileak: EAEko Liburutegi Zerbitzua eta Galtzagorri elkarte

Arduradun akademikoa: Miriam Luki (Galtzagorri elkarte)

AURKEZPENA

Ikastaroaren xedea hurrekin eta gazteekin literatura bitartekaritzan ari diren bitartekariei **tresnak** eskaintzea da; alde teorikoari helduko diogu, baina ikastaroaren ardatza **bitartekaritza praktikak** izango dira; arreta berezia jarriko diogu gazteekin egiten den irakurketa bitartekaritzari.

Ikastaroak tresnak eskaini nahi dizkio bitartekariari hurrekin eta gazteekin irakurtzen dutenean erabil ditzaten. Irakurtzen ikasi egiten dela dio Anna Juan Cantavellak eta ikasteko prozesuan laguntzen ari den bitartekariari erremintak ematea ezinbestekoa da. Tresna teorikoak ezinbestekoak dira, baina praktikoei egingo diegu azpimarra. Ikastaroaren helburua da bitartekariak maleta bete tresna ateratzea generoak lantzeko, ikuspuntu anitzak baliatzeko, obrak aukeratzeko eta haiek ere irakurtzen ikas ditzaten.

Saio gehienak euskal adituak eta arituak egingo dituzte, kanpotik ere etorriko dira puntako adituak hemengoen jakintza aberastera.

HARTZAILEAK

Bitartekaria da liburuaren/irakurketaren eta haurren edo gaztearen dagoen profesionala, amateurra edo gurasoa. Zubia da, xamana da. Bi mundu lotzen ditu eta ez da magia egiten dakielako; lotzen baditu, bi munduak (haurra/gaztea eta literatura) oso ongi ezagutzen dituelako da. Ezagutza hori da, hain justu, ikastaro honetan landuko duguna.



Hartzaileak, horrenbestez, bitartekaritzan ari direnak dira: liburuzainak, irakasleak, liburu-saltzaileak, editoreak, irakurleak, idazleak, ilustratzaileak, gurasoak eta, finean, haur eta gazte literaturaren bitartekaritzan interesa duen edonor.

HOMOLOGAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren homologazioa eskatuta dago. Onarpenaren zain.

EBALUAZIOA

Titulua lortzeko %80ko asistentzia eskatuko zaie ikasleei. Ez dute lanik egin beharko.

IZEN-EMATEA

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da otsailaren 13a arte. Horretarako formulario hau bete behar da; formularioan datu pertsonalak eta gehienez hamar lerroko gutun bat idatzi behar da, non ikastaroa egiteko motibazioa agertu behar den.

30 lagunentzat tokia dago.

Ikastaroan onartutako pertsonen emailez jakinaraziko zaie lehenbailehen.

MATRIKULA

Matrikularen prezioa:

- 50 euro langabetuek eta ikasleek
- 100 euro Galtzagorriko bazkideek
- 150 euro beste guztiek

Matrikula Galtzagorri elkartearen bitartez egin beharko dute.

PROGRAMA

HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK		
1. Bitartekaritza: oinarriak		
Galtzagorri elkarte	Martxoak 4	Galtzagorri
Hitza	Martxoak 11	Freddy Gonçalves
Irudia	Martxoak 18	Piu Martinez
2. Bitartekaritza: espazioak		
Eskola liburutegia	Martxoak 24 (asteartea)	Maria Pousa
Herri Liburutegia	Martxoak 25	Ziortza Onaindia
Eskola	Apirilak 15	David Bilbao eta Idoia Alustiza DBHko eta Batxilergoko literatura irakasleen arteko elkarriketa
3. Bitartekaritza: praktikak eta tresnak		
Ahozkotasuna	Apirilak 29	Juan Kruz Igerabide eta Yolanda Arrieta Bakoitzak banakako ordubeteko saioa eta bien arteko elkarriketa
Ipuin kontaketa eta antzerkia	Maiatzak 6	Amaia Egidazu eta Intza Alkain taula gainean
Narratiba	Maiatzak 13	Idazleak idatzi Miren Agur Meabe
		Hurrek eta gazteek sortu Eider Perez
Poesia	Maiatzak 20	Poetak idatzi Leire Bilbao



		Haurrek eta gazteek sortu Peru Magdalena eta Saroa Bikandi
Albuma	Maiatzak 27	Karla Fernandez de Gamboa eta Maite Gurrutxaga Banakako ordubeteko saioa eta bien arteko elkarriketa
Komikia eta fanzinea	Ekainak 3	Maite Caballero eta Paula Estévez
Bitartekaritza: bilketa	Ekainak 10	Anna Juan Cantavella
Bitartekariaren tresnak	Ekainak 17	Mireia Delgado